

5. MANKOMUNITATEETAN TXERTATZEA

“Bi proposamenek udalez gaindiko mankomunitateak eta elkarteak entitate berrietan txertatzea proposatzen dute”.

2017ko proposamena

Honen asmoa da gaurko mankomunitateak eta udalez gaindiko elkarteak eskualdeetan txertatzea

Sortuko duen Foru Legeak hala ezartzen duenean, mankomunitate bateko lurralde-eremua eskualde jakin batekoa baino handiagoa den kasuan, mankomunitateak iraungo du, modu iragankorrean, eta eremu txikiago batean.

2012ko Foru Lege Proiektua

Interes Orokorreko Mankomunitate baten sorrerak ekarriko du bere eremuko mankomunitateak desagitea, aipatu 50. artikuluko 3. puntuak horretarako ezartzen duen prozedura bete beharrik gabe (LFALN- TABFL legeaz ari da).

Ez zituen kanpoan uzten Interes Orokorreko Mankomunitate baten eremua baino eremu handiagoa hartzen zuten mankomunitateak, eta gertatzen ahal zen oraindik eratu gabeko Interes Orokorreko Mankomunitate baten lurraldean zegokeen mankomunitate bat desagitea.